



IKASLEENTZAKO DEKALOGOIA

Prebentzioa da Covid-19aren aurka borrokatzeko modurik onena

01

Unibertsitateko kide guztien ardura da COVID-19aren hedapena kontrolatu eta gutxitzeko babes neurriak zorrotz betetzen laguntzea.

02

Unibertsitatean joan aurretik, etxean zeure burua aztertu behar duzu sintomarik duzun ikusteko. Sintoma hauetakoren bat baldin baduzu, >37°-ko sukarra, eztul sikua, samako mina, arnasa hartzeko arazoak, usaimen eta dastamen falta... ez etorri unibertsitatean.

Era berean, ez etorri gaixotasuna diagnostikatu badizute edo isolamenduan edo berrogeialdian bazaude sintomak dituen norbaitekin edo azken 14 egunetan gaixotasuna diagnostikatu dioten norbaitekin kontaktu estua izan duzulako, edo diagnosirako probaren emaitzaren zain bazaude.

Unibertsitatean zaudela sintomarik igarri gero, isolamendu gelara joan eta ez izan harremanik inorekin; jarri harremanetan lehen arretarako zure osasun zentroarekin eta eman egoeraren berri ikastegian COVID-19aren ardura daukan pertsonari.

03

COVID-19arekiko kaltebera bazara, zure medikuak emandako prebentzio neurriak bete behar dituzu.

Horrez gain, Ikasleen Zuzendaritzarekin (ikasle-zuzendaritza@ehu.eus) jarri behar zara harremanetan eta medikuaren ziurtagiria aurkeztu beharko duzu. Zure egoera aztertuko dute, eta egoki iritziz gero, ezarriko zaizkizun neurri berezien berri emango dizute.

Arreta berezia eskainiko diegu dibertsitate funtzionala daukaten edo hezkuntzarako laguntza berezia behar duten ikasleei; izan ere, beharbada, egokitzapenak beharko dituzte, hala nola, laguntzailea edo baliabide materialak edo laguntza teknikoak. Ikasle horien laguntzaileek prebentzio orokorreko arauak bete behar dituzte, eta, beraz, gainerako pertsonetikiko distantzia fisikoa gorde behar dute

04

Ez eman musurik ez besarkadarik; mugatu kontaktu fisikoa, eta gogoratu oihukatzeak, abesteak edo putz egiteak areagotu egiten duela birusaren tantak urrutira bidaltzeko arriskua.

05

Maskara erabili behar duzu beti eta modu egokian (sudur-trenkadaren zatitik kokotseraino estalita aurpegia). Erabili ere, unibertsitateko gune guztietan erabili behar duzu (liburutegian, jantokian, kafetegian, ikasteko geletan... ere jantzita izan behar duzu), nahiz eta pertsonen arteko segurtasun tartea gordetzeko aukera izan.

06

Gorde beti segurtasun distantzia eta ikastegian jarritako seinaleei jarraituz ibili.

07

Gelan sartu aurretik eskuak garbitu. Komunera zoazenean, eskuak hidroalkoholarekin garbitu sartu aurretik eta irten ondoren.

08

Gomendio da gelan beti leku berean jesartzea, horrela, kutsatzerik izanez gero, ahalik eta lagun gutxien izateko harreman eremuan. Debeakuta dago mahaiak eta aulkiak lekuz aldatzea, ez bada horretarako arrazoiren bat dagoela, eta egitekotan, irakasleari eman behar zaio berri.

09

Ez utzi inori zure gauzarik, eta utzi behar izatekotan, ondo garbitu gel hidroalkoholikoarekin. Ondo garbituta izan behar dituzu zure gauzak: telefonoa, gailu elektronikoak, eta abar.

10

Bete beti UPV/EHUk emandako jarraibideak eta ezarritako neurriak.